

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2706

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 6koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Masterra egiteko laguntzetarako deialdia egiten duena.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna ezinbestekoa da emakumeen aurkako indarkeria –berdintasun ezaren adierazgarri larrienetako bat eta giza eskubideen urratze nabarmena– erabat ezabatzeko. Arazo konplexua da, eta gizartetik guztiz ezabatzeko nahitaezkoa da koordinaturik jardutea indarkeria-egoerak, haien kausak eta indarkeria darabiltenen jarrerak prebenitzeko neurriak ikertzen, profesionalak trebatzen eta laguntza-eta harrera-zerbitzuak biktimen beharriaz netara egokitzen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 53.2 artikuluan ezartzen denez, «Euskal herri-administrazioek, betiere, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen eta biktimak zaintzen eta haiei laguntzen diharduten erakunde pribatuetako langileek prestakuntza jaso dezaten lagunduko dute».

Horregatik, Emakundek, Deustuko Unibertsitatearekin koordinaturik, Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Aditu eta Master ikastaroaren lehen edizioa kofinantzatu zuen 2003. urteko jarduketa planaren barruan.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu ziren eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren. Dekretu horren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak zuzentzea eta koordinatzea.

Ezarritako lankidetzari-ildoarekin jarraituz, Deustuko Unibertsitateak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak premia ikusi dute emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen lagunduko duten neurriak bilatzeko eta marko berri bat ezartzeko. Marko berri horrek ahalbidetuko du, batetik, hasitako prestakuntza-esperientziarekin jarraitzea, eta, bestetik, laguntza-deialdi publiko hau egitea, 2014-2015 ikasturterako, hain zuzen ere Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Master Ofizialaren edizio hau finantzatzeko, eta, hartara, langile espezializatuaren prestakuntzaren alde egiteko.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eremua eta xedea.

Ebazpen honen xedea da Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala egiteko laguntzen deialdia egitea. Masterra Deustuko Unibertsitatean emango da, 2014-2015 ikasturtean. Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala 60 ECTS (Europako kredituak) dituen master ofiziala da, eta bost modulutan egituratzen da:

- I. modulua: Gizarte mailako eta diziplina arteko esku hartzea.
- II. modulua: Esku-hartze sozialerako tresna profesional espezifikoak.
- III. modulua: Genero-indarkerian eta etxeko indarkerian esku hartzea.
- IV. modulua: Kanpoko praktikaldiak.
- V. modulua: Masterreko amaierako lana.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Aurreko artikuluan ezarritako xederako erabiliko diren diru-baliabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontuko kredituetatik etorriko dira, eta, guztira, hogeita zazpi mila berrehun eta berrogeita lau (27.291,60) euro dira.

3. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

Deialdi hau lehiaketa-prozeduraz ebatziko da. Horretarako, garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, eta lehentasunaren arabera hurrenkeran jarriko dira, 10. artikuluan finkatutako esleitze-irizpideen arabera. Puntu gehien lortzen dituzten eskaerei bakarrik esleituko zaizkie diru-laguntzak.

4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Onuradunak hamabost (15) izango dira gehienez.

2.– Betekizun orokor hauek betetzen dituzten pertsonak eska ditzakete laguntzak:

a) Administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan eduki behar da, laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik, gutxienez.

b) Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofizialean onartutakoen artean izatea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan ezarritakoa betez, obligazioak betetzea (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartutako Testu Bategina).

d) Ebazpen honetan jasotzen dena betetzea.

3.– Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko trebakuntza jaso duten pertsonak ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, baldin eta trebakuntza hori herri-administrazio batek finantzatu badu eta 150 ordukoa edo gehiagokoa izan bada.

4.– Ezingo dira izan ebazpen honetan deitzen diren laguntzen onuradun diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean sartuta daudenak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean sartuta daudenak.

5. artikulua.– Laguntzak baliabide elektronikoz izapidetzea.

1.– Prozedura honetako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskaerak egiteko, interesdunek baliabide elektronikoak erabil ditzakete.

2.– Izapidetze elektronikoa Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan arautzen da.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak –bai aurrez aurre, bai bide elektronikoz– izapidetzeko jarraibideak honako egoitza elektronikoa honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.net/dirugantza/-/2014/deustuko-masterra/>

4.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoz egiteko, egoitza elektronikoa hau erabili ahal izango da: <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea 2014ko irailaren 8an amaituko da.

2.– Eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari zuzenduko zaizkio, eta aurrez aurre aurkez daitezke honako leku hauetan: herritarrei arreta emateko bulegoetan, Zuzenean Zerbitzuan (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo; Andia 13, 20003 Donostia; Ramiro de Maeztu 10, 01008 Vitoria-Gasteiz); Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Erregistro Nagusian (Manuel Iradier 36, Vitoria-Gasteiz); edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 adierazten diren bulegoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Eskabide-eredua eta gainerako dokumentazioa ebazpen honekin batera argitaratuko dira EHAAn, eta euskadi.net egoitza elektronikoa ere eskuragarri egongo dira.

3.– Interesdunek beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak eta horiekin batera doazen ziurtagiriak Eskabidearen ondoriozko jardueretan eta prozeduran zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Eskabideak aurkezteak berekin dakar deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartzea.

5.– Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak gutun-azal irekian jarri beharko dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, dagokion bulego publikoan noiz sartzan den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

7. artikulua.– Betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskatzaileak aukera izango du berariaz onartzeko organo kudeatzaileak agiriak partez eskuratzera edo egiaztatzea, nahiz aurrez aurreko bidea nahiz bide elektronikoa erabiltzen duenean. Horrek ez du eragotziko Administrazio Publikoak egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenak betetzea.

2.– Laguntza-eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Egoitza datuak egiaztatzea: interesdunak errolda-agiria aurkeztu beharko du, laguntza eskatu aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean gutxienez urtebete erroldatuta egon dela frogatzeko.

b) Laguntza eskatzen den prestakuntza-arloan (aukera-berdintasuna, emakumeen kontrako indarkeria, etab.) eskatzaileak duen esperientzia egiaztatzea. Eranskinean ageri den Curriculum Vitae-ren eredu laburra erabiliko da.

c) Eskatzaileak genero-indarkeriako esku-hartzearen arloan prestakuntza jasotzeko zer nolako interesa duen azaltzea. Horretarako, eskuz idatzitako azalpen memoria bat aurkeztu beharko du.

d) Deustuko Unibertsitatean masterra egiteko onartua izana egiaztatzea, hori izan ezean, onarpen-eskabidearen kopia.

e) «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia. Inprimaki hori eskuratzeko helbidea hau da: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html

f) Nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo pertsona fisikoaren nortasuna egiaztatzen duen antzeko dokumentua, baldin eta eskatzaileak egiaztatzeko baimenik ematen ez badio Administrazioari.

3.– Eskakizunak egiaztatzeko modua helbide elektroniko honetan zehaztuko da: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/master-deusto

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua betetze-aldera, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu ahal izango da obligazio hauek betetzen direla:

a) Beste edozein administrazio edo erakundek –publikoa zein pribatua izan– helburu bererako ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatuz eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri eman behar da.

b) Eskatzaileak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

c) Egiaztatu egin beharko du, halaber, ez duela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egitegatik, eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, ez zaiela horrelako debekurik ezarri.

d) Egiazkoak direla eskabidean eta erantsitako agirietan jasotako datuak.

e) Eskatzaileak betetzen dituela indarrean dagoen legedian laguntza hauen onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak.

Laguntza emateko ebazpena hartu aurretik, egiaztatu egin behar dira aipatutako betekizun horiek, bai dagozkion egiaztagiria aurkeztuta, bai organo kudeatzaileari baimena emanda, zuzenean egiaztatu dezan.

5.– Erantzukizuneko adierazpenarekin batera doan edo aurkeztzen den edozein datu, adierazpen edo agiritan oinarritako zehaztasunik eza, faltsukeria edo omisioa atzemanaz gero, galdu egingo da prozeduran jarraitzeko aukera, horren berri dagoen momentutik, alde batera utzi gabe gerta litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Halaber, gisa horretako egoera dagoela adierazten duen Administrazio Publikoaren ebazpen bidez, interesdunak dirua itzuli beharra duela adierazi ahal izango da, hala badagokio, eta denboraldi jakin batean ezin izango duela helburu bererako prozedura hasteko eskatu; hori guztia aplikatzekoak diren arauetan xedatutakoaren arabera.

6.– Beharrezko iritziz gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak egokitzat jotzen duen informazio osagarria eska dezake.

7.– Laguntza ukatuz gero, aurkeztutako agiriak berreskuratzeko epea hilabetekoa izango da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpena argitaratzen denetik aurrera, baldin eta ebazpen horren aurkako errekurtsorik jartzen ez bada. Izan ere, errekurtsoa jartzen bada, errekurtsoa ezesteko ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatuko da epea.

8. artikulua.– Eskabideetan atzemandako akatsak zuzentzea.

Laguntzetarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agiriaren bat falta badute, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak falta diren agiriak aurkezteko edo atzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta horretarako, hamar egun baliouduneko epea emango dio jakinarazpenaren egunaren biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz ebazpena eman beharko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraikiz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

9. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, hautaketa-batzorde bat eratuko da. Hona hemen kideak:

Presidentea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Bokalak:

- Administrazio eta Zerbitzu Arloko arduraduna.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Arloko arduraduna.
- Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikari bat.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduradunak beteko du eginkizun hori.

2.– Batzordeak elkarrizketak egin ditzake hautagaiekin, bai agiriei buruzko zalantzak argitzeko, bai eskabideko datuetan sakontzeko.

3.– Hautaketa Batzordearen osaera EHAAen argitaratuko da, eratu aurretik.

10. artikulua.– Laguntzak esleitzeko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko, Hautaketa Batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

- a) Unibertsitateko prestakuntza masterraren edukietara egokitzea. Gehienez 20 puntu.
- b) Curriculumaz kanpoko prestakuntza osagarria. Gehienez 20 puntu.
- c) Arlo akademikoan egindako lanak: irakaskuntzan laguntzea, ikerlanak, etab. Gehienez 20 puntu.
- d) Boluntario zein profesional gisa egindako lanak. Gehienez 20 puntu.

e) Beste hizkuntza batzuk jakitea. Gehienez 10 puntu.

f) Masterra egiteko arrazoi eta zio pertsonalak. Gehienez 20 puntu.

11. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa matrikulak duen balioaren % 28 izango da, 2014-2015 ikasturtean, eta, gehienez, mila zortziehun eta hemeretzi euro eta berrogeita lau zentimo (1.819,44).

Onuradunak gutxiago baldin badira ebazpen honen 4.1. artikuluan aurreikusten den gehienezko onuradun kopurua –hamabost– baino, dotazio-soberakina onuradunen artean banatuko da modu proportzionalan, harik eta aurrekontu dotazioa agortu arte. Nolanahi ere, laguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu matrikula-kostuaren % 100.

12. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publiko edo pribatu guztiek helburu berarekin ematen dituztenekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu, diru-laguntzak esleitzeko irizpideei jarraituz; ondoren, proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari. Emakundeko zuzendariak ebazpen adierazia emango du, zeinaren bidez lehia-keta-prozesua amaituko baita eta diru-laguntza nori eman eta nori ukatu zaion adieraziko. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, herritar orok horren berri izan dezan. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, hala ezarrita baitago uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

2.– Ebazpen honen babesean egindako eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabete izango da gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horretan interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Prozedurari amaiera emateko ebazpenean, pertsona onuradunen zerrenda jasotzeaz gain, ordezkoen zerrenda ere jasoko da, dagokien hurrenkeraren arabera, onuradunen batek uko egingez gero, ordezkoengana jo ahal izateko.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Ildo horretatik, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko idatzia jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Alta emanda egotea Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan. Betekizun hori bete behar da, deialdia ebazteko eta ordainketak egin ahal izateko, laguntza ematearen aldeko ebazpena izanez gero.

c) Diru-laguntza zertarako eman den, xede horretarako erabili behar dute, eta, halaber, diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu behar dute.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

15. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza zatika ordainduko da, bi alditan. Lehenik, emandako diru-laguntzaren ehuneko hirurogeita hamasei, 14.a) artikuluan aurreikusitako epea igarota, eta berariaz uko egiten ez bada. Ondoren, gainontzeko ehuneko hogeita laua ordainduko da, zehazki onuradunak ikasturtearen lehen seihilekoan zer nolako asistentzia eta aprobetxamendua izan duen azaltzen duen Deustuko Unibertsitatearen jarraipen-txostena helarazi eta gero.

16. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari jakinarazi beharko zaio Diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatuz gero (betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada) edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk laguntzarik edo diru-laguntzarik emanez gero, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu daiteke.

2.– Ebazpen honetako 15. artikuluan aipatutako txostena edo, hala badagokio, artikuluko hone-tako aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, eta agiriak aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez, emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatuko du; horrez gainera, hala badagokio, diru-laguntzen zenbatekoak egokituko ditu. Ebazpen horren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hilabeteko epean, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3, 46.1 eta 46.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, eta bereziki, justifikaziorik gabe masterreko eskoletara joateari utzi zaiola edo masterra bertan behera utzi dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horiei dagozkien legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak ere abiarazi ahal izango dira.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak eta/edo betebeharrak betetzen ez direla eta, emandako diru-laguntza ezeztatu eta, hala badagokio, diru-laguntza itzultzeko jarraituko den prozedura abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio. Dekretu horrek honako hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio, egokitzen joz gero, alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, hala ezarrita baitago uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldiaren itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzeko den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik diru-laguntzak itzultzeari buruz artikuluko honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

19. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuen tratamendua egiteko. Fitxategi horrek «Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen pertsona-erregistroa» du izena, eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago. Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko bakarrik erabiliko da fitxategi hau. Hala nahi dutenek, legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatze eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala xedatuta baitago uztailaren 13ko 1998/13 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

2014ko ekainaren 19a, osteguna

AZKEN XEDAPENETETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 6a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

Eskabidea
**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO
 UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALAREN EDIZIO BAT EGITEKO LAGUNTZAK**

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *
 Titularra Ordezkarria
Datu pertsonalak**Titularra**

Izena *

Telefonoa

Lehen abizena *

Bigarren abizena *

Sexua * Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea**Ordezkarria**

Izena / Erakundearen izena

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

 Emakumea**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *** **Posta bidezkoa**

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA **Elektronikoa****Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza ***
 Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman ez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu diot, eta eman egin dit (atal honetako datuak "Beste finantziario-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu diot, baina oraindik erantzunaren zain nago (atal honetako datuak "Beste finantziario-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Berariazko adierazpena

Aitortzen dut:

- Herri administrazioak ordaindutako 150 ordu edo gehiagoko Gizonen eta Emakumeen berdintasun formazioa ez dut jaso.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez daukat diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didan zigorraren edo administratiborik.
- Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan lege-debekurik, beren-beregi sexu-diskriminaziotatik¹ lege-debekurik.
- Egunean ditut indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, arauz zehaztu bezala².
- Betetzen ditut laguntza hauek jasotzeko indarreko legediak ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak.

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

Nortasun-datuak

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

Datu pertsonalen babesa³ (DPBL)

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: Emakunderen Pertsonen Erregistroa
- Non arautua: 2003ko uztailak 1eko ARAUDIA
- Titularra: Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer
- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer-ekin:

Manuel Iradier 36
01005 Vitoria-Gasteiz

Laguntzak behar bezala esleitzeko, Administrazio publikoak adierazi diren datuak erkatu ahal izango ditu eta berariazko egiaztapenak egin.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

³ Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak –DPBL- xedatutakoa betez.

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularrari* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzun duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALAREN EDIZIO BAT EGITEKO LAGUNTZAK ERANSKINA

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

Beste finantziazio iturriak

Beste finantziazio iturriak erabili dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zeintzu?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

Beste laguntzak eskatu dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein organismoari?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

EUROPAR CURRICULUM MODELOA

Informazio pertsonala

1

Lehen Abizena:	_____	Bigarren Abizena:	_____
Izena:	_____		
Helbidea (Kalea/Plaza):	_____	Zk:	_____
		Pisua:	_____
Herria:	_____	PK:	<input type="text"/>
Telefonoa:	<input type="text"/>	Mugikorra:	<input type="text"/>
		Faxa:	<input type="text"/>
E-mail:	_____		
Nazionalitatea:	_____	Jaiotza-data:	_____
Sexua:	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Lortu nahi den lanpostua / Familia profesionala

Lortu nahi den lanpostua:	_____
---------------------------	-------

Lan-esperientzia

Berrietik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____

Lanbidea edo betetako kargua: _____

Eginkizunak eta ardura nagusienak:

Enpresa edo enplegu-emailearen izena: _____

Enpresa edo enplegu-emailearen helbidea: _____

Enpresa edo sektore-mota: _____

Hezkuntza eta prestakuntza

Berrietik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____

Lortutako titulua: _____

Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak: _____

Ikastetxearen izena eta mota: _____

Nazioarteko sailkapenarekin edo sailpen nazionalarekin bat egiten duen maila: _____

Gaitasunak eta trebetasun pertsonalak**2****Hizkuntzak**

Zure ama-hizkuntza adierazi (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, bakoitza adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza(k) - Autoebaluazioa:

Hizkuntza	Ulermena		Ahozkoa		Idatzia
	Ahozko ulermena	Idatzizko ulermena	Ahozko elkarreragina	Ahozko gaitasuna	

Gaitasunak eta jendetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta antolatzeko trebetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun teknikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun informatikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun artistikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Beste gaitasun eta trebetasun batzuk

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gida-baimena:

- | | | | | | |
|-----------------------------|--------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|----------------------------|------------------------------|
| <input type="checkbox"/> AM | <input type="checkbox"/> B | <input type="checkbox"/> C1 | <input type="checkbox"/> D1 | <input type="checkbox"/> E | <input type="checkbox"/> BTP |
| <input type="checkbox"/> A1 | <input type="checkbox"/> B + E | <input type="checkbox"/> C1 + E | <input type="checkbox"/> D1 + E | | |
| <input type="checkbox"/> A2 | | <input type="checkbox"/> C | <input type="checkbox"/> D | | |
| <input type="checkbox"/> A | | <input type="checkbox"/> C + E | <input type="checkbox"/> D + E | | |

Beste informazio batzuk

Ahal honetan garrantzia eduki dezakeen beste edozein informazioa adierazi, adibidez jende-kontaktua, erreferentziak, argiltapenak, etab.

Eskatzaileak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko prestakuntza jasotzeko zer nolako interesa duen azaltzeko memoria

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

DOKUMENTUARI BURUZKO AZALPENAK

1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculum nola betetzeko informazioa jasotzeko, helbide honetara jo:

<http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp>

2 GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK

Autoebaluazio taula sei maila-eskalako hizkuntzetarako erreferentzia den Europako esparru komunean oinarritzen da, Europako Kontseiluak egina.

Taulak honako 3 mailak ditu:

- oinarrizko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- erabiltzaile independentea (B1 eta B2 mailak);
- erabiltzaile gaitua (C1 eta C2 mailak).

Azterriko hizkuntzan zure maila autoebaluzteko, hurrengo deskribapenak irakurri eta zure curriculumean agertzen diren laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idazmena) maila egokia adierazi (adibidez Bikain - C2).

Ahozko ulermena	A1	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz).
	B1	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiez diharduten telebista-edo irrati-saioetako ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista- programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzeneko, ezta komunikabideetako ere, baita jatorrizko hiztunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Idatzizko ulermena	A1	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntean idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikulua eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulua espezializatuak edo literatura-lanak.

Ahozko elkarreragina	A1	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeko, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labor-laburrak egiteko.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaiaren batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak,...).
	B2	Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritzia azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziak konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Ahozko adierazpena	A1	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldua egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idatzizko adierazpena	A1	Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako zorientzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen didan garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jarioz idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikuluko konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.